

# ANTZERKIA ERREENTERIAN

## Xabier Olaskoaga

*Batzokiko taldeko partaide izan ziran Pilar, Sabin eta Miren, nere senideei ; eta orain, Ereintzakoak diran Sabin eta Sebastian nere illobei eskeiñitakoa.*

Juan Ignacio Gamonen *Erreneriako Edestian* irakurtzen ari nintzala, orra non topo egiten detan gure herrian 1.603 urteko udal etxeko batzar agiri batean azaltzen dan, Madalen jaietan eta urte artan "Auto Sacramental" izeneko antzerkiak egin zirala: "*La conversión y penitencia de María Magdalena*" eta "*La vida y loas de San Juan*" eta nola On Miguel Zabaletari oztupoak jarri zikioten "*El Triunfo de la limosna*" antzezteko. Bañan erriko jaiak zeukaten jarraipen eta jatorria onezkoak izanik, lortu al izan zuten antzerki lan ura aurrera ateratzea, gainera erlijio aldeko antzerkia izanik.

Eta, 1.600garren urteko gertaerak gogoan arturik, igaroden mendean gure erriak zer antzerki bizitza eraman duen agertzeko asmoa artu dut, zer antzerki talde edo zer gaitzasun izandu duan Erreneriak mailla onetan. Badakit utsune batzuek izango dirala eta talde bat edo beste izentatu gabe geldituko dela, bañan asmo onez nere lana asteko ausardia artzen det; or dijoa, bada, nere idazlan au.

### "ORFEÓN RENTERIANOKO antzerki taldea" (1.899-1.906)

Naiz mendea asi baiñan urtebete lenago sortua izan, bere ekintzak mende asieran izan ziran. Udal etxeko bigarren bizitzan, baita ere lengo Alondiga zarrean, egin zituzten eres antzerki edo zartzuelak. Liburu bat egiteko aina istori badirade, bai auen eta bai beste taldearenak; eta, nai eta nai ez, laburpenak egitea onena dela iruditu zait.

Talde onek antzeztutako antzerkien artean, "*Música Clásica*", "*Los Puritanos*", "*Gigantes y Cabezudos*", "*La Marcha de Cádiz*", "*Leyenda del Monje*" eta "*la Alegría de la Huerta*" ditugu. Bañan, auen artean euskerazko "*Pudente*" izeneko opera bat ere egin zuten, Serafín Barojaren hitzarekin eta Santesteban maixuaren musikarekin.

Antzerkilari auen meritorik aundiena zen, antzerki danak gizonezko eta emakumezkoentzako idatziak izanagatik ere, soilik gizonak egiñak izaten zirala.

Antzezle batzuen izenak or dijoazkizue: Estanis eta Manolo Samperio, Antón Olan, Leandro eta Eusebio Uranga, Faustino Etxeberria, José Piqueras eta Federico Olaziregi.

Naiz bizitza laburra izan, talde onek arrakasta ugari izan zituen Erreneriako biztanleen artean.

### "CÍRCULO CARLISTA-ko antzerki taldea" (1906-1936)

Beren sorrerako berriak ez ditut lortu, bañan 1.910garren urtetik aurrera beren saioen berri badut. Nere berri emailleak dionez, talde onek lenengo lokala Orereta Kaleko 5garrenean izandu zuen, gero Erdikokale eta beko kalean jarraiturik 1.936ko uztaile arte.

Berak egindako antzerki zerrenda ugaria izandu zan. Geienak erderaz, bañan euskerazko batzuek ere egin zituzten, Jose Arruabarrena zuzendari izanik eta Reparado Olaizola, bere anai Juliorekin, talde artan zirelarik. Bañan geiengo egintzak antzerki alai eta zartzuelak izandu ziran, antzezlarien artean musikalaria eta abots oneko jendea izanik. Egindako obrak: "*Poloorilla*", "*On Parle Francais*", "*Las gallinas de la tía Marcela*", "*La Alegría de la Huerta*", "*Manu*", "*Cadáveres Ambulantes*" eta "*Pulmonía doble*", beste batzuren artean. Antzezleen artean: Manuel Galarraga, Agustin Salaverria, Ramon Zapirain, Irazoki anai-arrebak, Saez aizpak, Feli eta Elena Etxeberria, Maritxu Olaizola, Ramon Basurto, Luis Salaberria; musika eta zuzendaritza Luis Eizagirre eta Tomas A. Dadien ardurapean.

1.936garrengo guda ondorean, talde au desagertu zan, naiz taldeko batzuek kontzertu batean beren egintzak azaldu.

### "CUADRO ARTÍSTICO CERVANTES" (1.915)


1.923go *RENERIA* aldizkarian, Mariano Martínez Medrano maixu jakintsuak, gure errian bizi zanak (nere ume denboran ezagutu nuen jaun agurgarri ura) beti intelektual izaerarekin jantzia eta kultura mailan oso adituak, lerro batzuek idatzi zituen talde oni buruz: "*Inteligentes aficionados al arte dramático han constituido un cuadro artístico que, tras concienzudos ensayos, presenta obras teatrales en el salón Reina Victoria, que han merecido el aplauso del numeroso público que acude a presenciarlas.*"

*Durante las fiestas se proponen actuar y nos complacemos en anunciarlo, para que los forasteros puedan apreciar las dotes artísticas de una buena parte de la juventud renenteriana. También es su propósito continuar constituidos y celebrar veladas durante el invierno.*

Naiz datu gehiago ez izan, talde au Erreneriko antzerkilari bezela artzen det.

### "CÍRCULO LIBERALEKO antzerki taldea" (1.918)

Orain Xenpelar kaleko 4 zenbakia dagoen etxean "*Círculo de la Coalición Liberal*" izeneko alderdi politikoaren egoitza zegoen eta bertan ere antzerki egintzak izandu ziran. Enrique Elizetxea, Ramón Illarramendi antzerki egillearekin bat egiñik, bertako zuzendari lanean aditu zirala diote.




# ANTZERKIA ERRENTERIAN



Xabier Olaskoaga



**OARSO**



**2000**







Berri gutxi jaso ditut auen gain, bañan antzezlari batzuen izenak lortu ditut. Auen artean, izen auek azaltzen dira: Paz Zalakain, José M<sup>a</sup> Otegi, Juan José Urigoitia, Juan M<sup>a</sup> Elizetxea, Katalin Urigoitia, Dolores Ezenarro eta Juana Fernández.

Auen egintzak alai maillakoak izandu ziran.

#### “BATZOKIKO antzerki taldea”(1.912- 1.936)

Beko kaleko bigarren zenbakia dagoen etxean egin zuan lenengo antzerkia talde onek, gero kale bereko 5ean jarraiturik; andik batzoki berrira joan ziran, batzoki berri eta txukunera, Frontera maldako ezkerrean zegoen egoitzara; orain etxe altu berri bat dagoen lekuan.

Lenengo antzerki egille Regino Amoriza, Ireneo Rekalde, José Txapartegi, José Delpuerto, Xexilio

Gernikan, “*Iziartxo*” eta “*Dollorra*” antzerkiekin, Gari-tonaindia eta José Elizondo antzerki egilleak izanik.

Urte aietan punta puntako antzerki taldea izan zen errenteriarra, bañan 1.922garren urtean bere zuzendari zan Teodoro Goñi il egin zan Oviedo irian, bere eginberrak iri artara eraman zuten batean, Fabrika Aundiko ordezkaria baizan. Xeetasun auek nere arreba Pilarrek, bizi zelarik, oso argi eman zizkidan.

Gero taldea desegin zan eta Primo de Riveraren Diktadura etorri ondoren taldea desagertu zan. Beren ekintzetako berriak auek izandu ziran: “*Dollorra*”, “*Iziartxo*”, “*Garbiñe*”, “*Uste diñat*”, “*Biar arte*”, “*Ja jai*”, “*Tomas Inashio Donostian*” eta beste batzuk.

Taldea osatzen zutenak beste auek: Nikanor Albisu, Manuel Galarraga, Andrés Etxeberría, Migel Mitxelena, Ignacio Kortaberría, Jerónimo Etxeberría, Juan Jauregi, Agustina Ganborena, Pilar Olaskoaga, Juanita Lekuona,



Ćirculo Liberaleko Antzerki Taldea. Besteen artean: Pedro Otegi, Jose M<sup>a</sup> Otegi, Dolores Ezenarro, Obdulía Ezenarro, Angel Sainz, Natividad Maiz, Francisco Cobos, Juana Fernández, Goikoetxea, Jesús Hospitaler, José M<sup>a</sup> Sainz.

Gezala, Dolores Jauregi, Teodora Salaberría eta Julia Iza izan ziran.


Antzeztutako lanak, besteren artean, “*Gorgonioren estutasunak*”, “*Damua garaiz*”, “*Aterako gera*” eta “*Bateko urria*” izandu ziran.

1.920garren urte aldera Teodoro Goñi (oso antzerkizale eta aditua gai auetan) jabetu zan talde berri bat egiteko asmoz eta baita egin ere. Talde berri onek arrakasta aundia izan zuen bi sariketatan: Donostian (1.921) eta

Eladia Ganborena, Iñaki Lizaso, Julián Urkia apuntzalle izanik.

Diktadura garaia amaitu ondoren talde berri bat sortu zan, Felipe Lizasoren zuzendaritzapean, oso talde ona eta goi maillakoa eta 1.936 arte jarraitu zuten.

Talde ontako partaide ugari izandu ziran eta oroitzen naizenen izenak azalduko dizkizuet; bertako partaide izan bainintzen, naiz paper txikietan aritu: Felipe Lizaso bera, Periko Lizardi, nere senide Sabin eta Miren, Patxi



**OARSO**



**2000**



Kongregazioko "Oarso" Antzerki Taldea. 1947.

Oiarbide, Eugenio Errazkin, Luis Arocena, Andoni Korta, Bittor Idiazabal bere anai Iñaki eta Andonirekin, Pilar Cia, Xeberi Aierbe, María Jauregi, Anita Mitxelena, M<sup>a</sup> Luisa Arrieta, Rafaela Jurado... Egindako antzerkien artean: *"Amatxi"*, *"Dollorra"*, *"Tomas Iñashio Donostian"*, *"Abaroa eta babesa"*, Felipe Lizasoren *"tzalpean sendotusuna"*, José Olaizolaren *"Oleskari zarra"* zartzueta, *Mendibetarren larriak*, *"Idartzako jauna"*, *"Jo ta uts"* eta beste ainbat. Azkenik, egiñikan *"Iru gudari"* eta *"Negarrez igaro zan atsua"*, biak Manu Sotarenak, azkeneko guda asi zenean amaitu ziran ekintza aukeratu eta taldea desegin zan.

#### "AGRUPACIÓN ARTÍSTICO-MUSICAL"(1.924)

Eleizako kongregazioen artean egindako taldea degu au. Naiz eta bere egintza asko musika maillan izan ziran; On Bernardo Aurkia eleizako organu jolea izanik talde onen zuzendaritza artu zuana; eta nola antzerki batzuek egin zituzten, or dijoa baita ere beronen izena.

Bere bizitza denboran eguarri jai eta elizkoietan parte artzen zuten eta antzerki geienak zartzueta antzekoak izandu ziran: *"Jesusen jaiotza"* Agestarena, hiru ekitaldiko antzerkia; *"Días de amigos"*, *"Egintzak on, naiz ez jakin non"*, *"Elizatzoko ardazlea"*, eta abar.

On Bernardok Errenteritik aldegin bear izandu zuen, bere erri Leaburura, utsune aundia gure errian utzirik, bai antzerki gaietan eta gehiago musika lanean, eta onela talde au desagertu zan.

#### "CÍRCULO RECREATIVO"(1.929-1.936)

Nik arkitutako xeetasunen artean diotenez, elkarte hau Lagun Artea elkartearen ondoren bat izandu zan eta bere izenak dionez, jolasgarri elkarte bat izan bazan ere, antzerki talde bat ere izandu zan bere bizitza barruan

eta au ere zerrendan azalduko da. Garai artan oso aipatua izandu zan eta eta orduko antzerki ezagunenak azaldu zituzten eszenategian.

Orduan, Alvarez Quintero anaiak oso modan zegozten eta beraien antzerki aukeratu zituzten: *"La Pitanza"*, *"Los Chorros de oro"*, *"La bella Lucerito"*, *"Nanita, nana, nana"* eta abar; baita Jacinto Benaventeren *"El Nido ajeno"* ere.

Bertako antzezlariek aukeratu izandu ziran: Eduardo Idiazabal, Pepe Pérez, Vicente Alcalde, Juan Ruiz, Rafaela Alcalde, Hipólita Mata, Manoli Cabada, Vicente Cabezón eta bere arreba María Margari Alcalde gazte-txoa berekin zelarik, zuzendari Cabezón eta Alcalde jaunak ziren. Azkeneko au urte aietan erriko udalzainen agintaria zen. Oraindik talde ontako batzuek bizi dira.

#### "CUADRO ARTÍSTICO de las F.E.T y de las J.O.N.S (1.939)

Talde au ere, naiz aaztea obe den garaikoa izan, antzerki talde bezala sartzen dut. 1.939go egitarau batean irailaren 6an ain zuzen, azaltzen da Reina victoria antzokian, egin oi zen *"Amor de mentiras"* izeneko antzerkia egin zuten, José J. Goikotxearen zuzendaritzaren pean.

#### "GRUPO OARSO DE LA CONGREGACIÓN"(1.944)

Guda ondorenak ziran eta apaizen artean aldaketak izandu ziran. Apaiz gazte bat iritsi zan gure errira, gazteen artean eta erriaren onerako lan sendoak egiteko asmoz beterik eta bere asmoaren artean antzerki talde bat sortu zuen, aipatzen doten izenarekin. On Felipe Barandiaran zan apaizaren izena eta gure artean egondu zan bitartean lan ugariak egiña.



**OARSO**



**2000**



Talde oso ona lortu zuen, bañan antzerkiak danak erdaraz egin ziran, garai artan onela bear baizian: *"Los Intereses creados"*, Benaventerena, *"Sexo débil"*, *"En capilla"*, *"Asistente del coronel"* eta abar.

1.947garren urtean Habanara joan zen; Cubako uri nagusia, bertako seminario batera irakasle bezala eta bere ordezkot On José Luis Lekuona, beste apaiz gazte bat jabetu zan taldearekin.

Urte batzuek igaro ondoren taldea desagertu zan, bañan azken urteetan lana oso ona egin izan genduen: *"Chao"* mixioko zartzuela, *"La Casa de Quirós"*, *"Estatua de Pablo Anchoa"*, beste batzuen arteko antzerkiak izandu ziran.

Denbora artako antzezleak aukeratu izandu ziran: Antontxu Sainz, Ramón Ecnarro, José Pérez, Víctor Magaña, Joaquín Azkue, Inaxito Albisu eta beste batzuek. Tartean ni ere an nintzan. Andereñoen artean: Arantza Arruabarrena, Agapi Arruabarrena, Euxebi Elorza, Chelo Palacian, Manoli Elorza, Merche Elizondo, A. Aierdi, E. Goñi eta Tere Uranga; Luis Busselo dekoratzaile bezala eta F. Gurrutxaga laguntzaile izanik. Oso talde ona izandu zan eta bere saioak aipagarriak izandu ziran.

#### “EREINTZAKO ANTZERKI TALDEAK” (1956)

Ereintza elkarte 1.956garren urtean sortua izandu zan Erreterian eta arlo askotan ordutik ona lan egin du.

1.963garren urtean, urte pare bat ezer egin gabe igaro ondoren, berriro ekin zioten lanari. Pedro Mari Zabaleta zuzendari zutela, Antonio Pasoren *"Una bomba llamada Abelardo"* antzeztu zuten, eta egille beraren *"Vamos a contar mentiras"* eta *"El tonto"*. Gero utzi zioten lana egiteari. Antzezleen artean Mendizabal, Zapirain, Busselo andereñoak, Luis Miguel Yerobi, Angel Palomo, José M<sup>o</sup> Arbelaiz, José Luis Salgado eta abar ditugu. Auek izandu ziran gaztekeraz egindako antzerkien partaide batzuen izenak.

Urte auetan Andoni Korta, “Añarbe” zanak, batzokiko antzezlari izana eta euskal antzerkirako zaletasun bizia azaldua, Francoren denbora aietan, ausardi osoz, Ereintza barruan sortu zuen euskal antzerki talde bat, eta ez nolanaikoa; iraunkorra benetan eta oraindik ere bizi- bizi aurkitzen dena.

1.960an sortu zan taldea eta Luistarretan ganbara antzerki bat egin ondoren, bere lenengo jande aurreko saioa Madalen jaietan eman zuen Batzokiko antzokian (Cine Alameda orduan): Toribio Alzagaren *"Bost urtian"*, era onetan berritasuna emanik oitura zar bateri. Ekintza artan antzezle izan ziranen izenak hauek dira: Joshepi Artano, Arantza Martínez, Martín Izagirre, Xabier Etxabe, Olegario Izagirre eta Mikel Ugalde.

Asiera ona eman eta jarraipena ohea. Antzezle berri asko eta antzerkiak ere ugari, lenago esan detan bezala:



Batzokiko Taldea. 1920. Ezkerretik eskubira eta goitik behera: Manuel Calarraga, Pilar Olaskoaga, Andres Etxebarria, Norberto Urkia, Nicanor Albisu, Juan Jauregi, Jeronimo Etxebarria, Agustina Gamborena, Teodoro Goñi (zuzendaria), Pilar Mitxelena, Inaki Lizaso eta Ignacio Kortaberria.

Auetako bat antzerki taldea sortzea izandu zan eta ez nolanaikosi ere; lau talde bere elkarte barruan izandu zituan.

Erderaz iru talde mailla desberdiñetan izan zituen, anai Hipólito zuzendari izanik: Frailietako ikasleak izandakoak, hogei urtetik gorakoak, talde bat osatzen zuten; eta beste bi, mailla artatik berakoak: gaztetxoak eta umetxoak.

Ikasle izandutakoak mailla oneko antzerkiak antzeztu zituzten; orduan oso aipatua zen *"La Muralla"*, eta beste mailletan *"Ladrones en el quinto piso"* eta *"Los Golfos"* antzeztu zituzten.

Atanasio Arruabarrena, Sabin Irastorza, bere anai Sebastian, José L. Lakunza, Oetzeta, D. Gomara eta zerrenda buka eziña. Andereak: Ana Mari Ugalde, Maite Olaizola, Pilartxo Olaskoaga, Arantxa Pérez eta beste ainbat.


Ordutik ona antzeztutako lanak: *"Bost urtian"*, *"Ondoren neskazar"*, *"Ameriketako osaba"* (Koldo Mitxelenaren omenaldian), *"Dollorra"*, *"Senperen gertatua"*, *"Biziz bizi truk"*, *"Gai dagoenaren indarra"*, P. Larzabalen *"Iru ziren"*, eta bere *"Bordaxuri"* izenekoa, ondo ikasia zegoenean agintariek galerazi zutena, *"Maite ere neurritz"*; eta orain,



**OARSO**



**2000**





Ereintza Taldea: Sabin Irastorza, Maite Olaizola.

azken urteetan, Mikel Ugaldereen *“Añarberen bila”* (Andoni Kortaren eriotzaren 25garren urtemugaren omenaldian eskeinia), *“Jaioko dira berriak”* eta T. Monzonen *“Eneko Bizkai”* eta *“Maria Lorka”*.

1.972-3-4an Andoni kortak betirako utzi gintuan eta taldea umezurtz gelditu zan. Bañan berak utzitako sustraiak berriro suspertu ziran eta Olegario Izagirre, Sabin Irastorza, eta Mikel Ugaldere Andoniren jarraitzaile bezala gelditu dira eta, naiz eta urte batzuetan gora bera batzuek izan, berrogei urte igaro ondoren kimu berriekin antzerkia egiten jarraitzen du Ereintzako antzerki taldeak; oraindik tartean Sabin Irastorza eta Atanasio Arruabarrenak segitzen dutela ekintza batzuetan.

Antzezleri berrien artean aukeratu ditugu: Oneka Oliveri, Jurdana Escudero, Manoli Izagirre, M.A.Retegi, Josu Izagirre, I.Tolaretxi, Beñat Arbelaz eta barkatuko didazute izen askoren utsunea; izango baita zerrenda ontan. Beren ekintzak Euskadin zear izandu dira.

#### “ATELIER –UR TALDEA” (1.979)

Erretereriako Batxilergo Institutoan sortu zan *Atelier* taldea, gero *Ur* izenarekin jarraitu duen antzerki taldea, ikasle eta irakasle izandakoen artean, Helena Pimenta eta Susana Uñaren zuzendaritzapean.

Talde onak leku berezi bear du izan gure errian, zeren bere egintzak dirala eta, munduan zear Erretereriarren izena azaltzen baida. Bere egintzak idazteko lerro asko bearke nituzke, Espainian eta atzerri lekuetan beren azalpenak egin baidituzte. Lau urte sortu eta gero *“Giner*

*de los Ríos”* saria jaso zuten, milloi bat pezetakoa, esperientzi pedagogiko onenari. 1.983an Madrileko Ezkuntza eta Zientzia mailako ministerioak emana izandu zan.

*“El sueño del director”* eta *“Cándido o el optimismo de Voltaire”* *Atelier* taldeak egiñak izan ziran, gero *Ur* izenarekin jarraituz.

1.997eko *Oarso* aldizkarian talde on buruz ona zer dion Roberto Herrerok: *“Helena Pimenta, salamankarrak, bizi-tzaren erdia darama Euskal Errian eta Erretereriako institutuko irakasle bezala bere ontziak erre ditu antzerkiko zuzendari bezala jarraituz. Ur taldearekin gaur arte euskal talde batek lortu al izan duan arrakasta aundiena lortu du penintsula barruan eta kanpoan. Shakespearen “Sueño de una noche de verano” eta “Romeo eta Julieta” goratuak izan dira bai kritika eta bai beste medioengatik ere, bañan denen gaiñetik jendearen txaloa jaso du”*.

Bi obra auen artean 480 antzeppen egin zituzten, 300.000 ikuslek ikusirik. Sariak jasotzen ere ez dira atzean gelditu: Sari Nazionala 1.993.an; El Cairoko sari berezia, eszenografia onenagaitik; José Tome, Susana Viñas eta Helena Pimentari, zuzendari bezala, Espainiako eszenako zuzendari elkarteak emandako saria. Aitazen ditugun bi antzerki auekin Madril, Lisboa eta Argentinako uriak, tartean Buenos Aires izanik, igaro dituzte.

Antzerki klasikoak erabilirik, orain ere erronka bereziak gai bezala dituzte aurrerantzerako, eta goralpen berezi bat merezi du Helena Pimentak eta bere taldeak Erretereriako izena munduan zear azaltzen ari diralako.

#### “BARNEKO antzerki taldea”(1.986)

Urte onetako otsaillean sortzen da talde hau, *Zingili Zangala* izenarekin eta Trintxerpeko antzerki taldearekin bat eginez. *Zingili Zangala* izenarekin 1.982an lan ugari egiten ditu, antzerkiak jai errikoietan, antzerki ikastaroak. Bañan gero, *Barneko* izenarekin bira bat egiten du Erretereriako ikastoletan zear, udaltxearen laguntzarekin *“Antolin, zer egin”* eta *“Hegal eta libururik gabe”* antzerkiekin. *“Lañoa”* antzerkia prestatu zuten. Ez dakit eta ez det aztarnik atera, orain nola dabilen antzerki talde au, bañan poz artuko nuke oraindik bizirik dagoela jakingo banu.

#### “LANGAGORRI antzerki taldea” (1.992)

Talde au 1.992garren urtean sortu zan, Eguarri jaiak zirala eta, Fatimako Andra Mari elizan, egun aietako ospakizunak zirelarik. Aita Jesús M. Iriartek bere ardura-pean taldea artu zuen, *Langagorri* izena emanez, Listorreta bidean dagoen iruinarri batena.

Asierako asmoa izan zan bertako eliztar eta jendeari une alai batzuek igaro araztea, eguarri antzerki erraz batzuek egiñaz; bañan ikusirik jendeak atsegin izan zuela, lenengo ekiñaldiak aurrera jarraitzeko asmoa artu zuten eta oraindik jarraitzen dute. Aita Iriartek, igaro dugun urtean, lekualdaketa izandu du eta orain zuzendari lanean Margari Rodríguez eta Inés Cañalek jarduten dute.


Bere ekintzak,asieran bezela, eleizbarrutian izaten dira, bañan ateraldiak izan dituzte, Sotillo de la Ribera (Burgos), Nafarroako Beran, Martuteneko espetxean eta erriko zaarren egoitzan antzestu dutelarik.



**OARSO**



**2000**



Ur Antzerki Taldea.

Orain komedia antzerkiak egiten dituzte, Rafael Mendizabal eta Miguel Mihuraren lanak erabillirik: “*Se armó el belén*”, “*Mi tía y sus cosas*”, “*Melocotón en almíbar*”, “*Viva el cuponazo*”, “*Cómo Antoñito López, natural de Játiva, subió a los cielos*”...

Taldea osatzen dutenen izenak hauek dira: Amaia Calvo, Arantza Ormazabal, Clotilde Espinosa, Yon Zenborain, Julián Etxeberria, Angel Calvo Fernández (soinua), Paco Calvo (muntai lanetan).

Auek ere aurrera jarraitzeko asmotan dira.

#### “AUSARDI”-Beti Bizkor,Zaar saritu eta pentsiodun elkarteko antzerki taldea” (1993)

Olibeteko zaar sarituen egoitzan Lourdes Lumberras Llanosek sortua. Lourdes González Huicik *Beti Bizkor* elkartean jarraipen eman zion. Orain María A. Esparza da zuzendaria.

Zuzendari onek “*Cabaret*” izeneko antzerkia egin du eta berau antzeztu dute azken urte auetan.

Bere ekintzen artean daude: “*Las aceitunas*”, “*Mañana de sol*”, “*El pregón sevillano*” Alvarez Quintero anaienak eta “*El florido pensil*”, beste batzuen artean.

Beren ekintza geienak zaar sarituen elkarteetan izan oi dira, bañan zaarren egoitzetan ere bere lanak erakutsi oi dute: Ondarribi, Lasarte, Hernani, Oiartzun, Txara 2, Irun, Eibar, Latxartegi zineman Legazpian eta Errenteriako elkartean aldi askotan.

Oraingo taldea auek osatzen dute: Neli Ballesteros, Mari A. Blanco, M<sup>a</sup> Pilar Ezeiza, Fermi Gabarain, Agustina Huizi, Félix Polo, Irene Valle eta Felipa Vega; danak María A<sup>a</sup> Esparzaren zuzendaritzapean.

#### “HAMLET- STAN TREK TALDEA” (1.998)

Berri asko ez dut aurkitu talde oni buruz, bañan antzerki taldea izanik eta bizirik arkitzen den antzerki taldea izanik gainera, bere izena talde multzoan sartuta geldituko da.

Abenduan, Antonio Onetiren “*Malfario*” izeneko antzerkia antzeztu zuten eta martxoaren 25ean, Café Boulevarden “*Facundo, qué mal está el mundo*” egin zuten.

Stank Streek taldeko partaideek, “*Histerias de la Historia*” egiteko arazo asko izanik, bakarlari batekin prestatu dute obra.

Horrela izanik, laister berriro ere azalduko dira beste antzezlan batekin.

#### “ADOS TEATRO TALDEA” (1.999)

Nere idazlan au bukatzen ari naizela, *Lau Haizetara* aldizkarian talde onen berri berriak iritsi zaizkit eta poz aundiz nere lanari amaiera emateko, beraren izenak Errenteriako antzerki taldeen artean lekua artuko du.

Garbi Losada agertzen da zuzendari bezala, eta berak idatzitako laneko itz batzuek artzen ditut, onela jakin baidet talde onen berri.

“*Manolito lau begi*” izeneko, Elbira Lindok idatzitakoa, obra antzeztu dute. Urtarrillaren bukaeran estreñatu zenetik oso jira zabalari ekin zion *Ados* taldeak Euskal Errian eta estaduan. Gaztelarreko testua izanik, itzulpenean esamolde askoren oiartzuna galtzen du, bañan ala ere, Manolito lau begiren ateraldiak eta esaerak jendeari far ugari egin arazitzen dio.

Ongi etorria, beraz, *Ados* teatro taldea gure Errenteriako talde bilduma onetara.



*Ereintza, Ur, Barneko, Ausardi, Langagorri, Hamlet Stan Trek eta Ados* teatroak osatzen dute Errenterian bizirik dagozten antzerki taldeak. Zazpi dira. Agian besteren bat izango da, ikastoletan edo elkarteren batean, bañan onuragarria da gure errian antzerki zaletasuna badagoela jakitea eta bai erderaz eta bai euskeraz joan den mendean asitakoak jarraipen ugaria izan duela.

#### ANTZERKI EGILLEAK

*Naiz laburki, ez nuke utzi nai azaldu gabe, izan eta ditugun antzerki egileen izenak: Lengo mende asieran, 1.910 urte aldean Ramón Illarramendi eta Juan Ignacio Uranga izanduz ziran antzerki lan ugariarekin gure erria lan artan ezagutzera eman zutenak. Gutxi ezagutuak ziran berak eta bere lanak, bañan “Rentería” urtekarietan eta Antonio M<sup>a</sup> Labaienek “Teatro Euskaro” izeneko liburuan beren ekintzen berri ematen du, 1.965garren urtean.*

*Ramón Illarramendik egindako lanak auek izanduz ziran: “Bateko urria” atal batekoa, “Artzai Philipe”, bi ataleko zartzueta, “Tomás Inashio Donostian”, “Cabon jaunak eta toriadoriak”, Egun bi Errenterian”, “Jo ta uts” eta “Testimoniyo faltsua”. Antzerki auetako geienak sarituak izan ziran.*


*Juan Ignacio Uranga Errenterian jaio zan, baña bere bizitzaren azken urtean Donostian eman zituen. Bere jaioterriaren maitale sutua izan zan, idazle, bertsolari eta antzerki egile au. “Rentería” eta “Oarso” urtekarietan bere garaian*



**OARSO**



**2000**





“Ausardi” Taldea. Alvarez Quinteroren “Mañana de Sol”. Felipa Vega, Fermini Gabarain eta M<sup>a</sup> Pilar Eceiza.

*makiña bat idazlan eta bertso eta olerki bere lumaren bidez azaldu ziran urte aietan.*

*Bere antzerki ekintza ugaria da, bañan geienak bakarrizketak dira:*

*“Aritzaren zumo gozoa”, atal bateko saiakera dramatikoak, “Umezurtza” eta “Manu”, atal bateko komediak. Bakarrizketa mailan hamazazpi azaltzen dira berak egiñak. Auen izen batzuek auek dira: “Ero algara”, bakarrizketa dramatikoak, “Amets bat dirudi”, “Euskaldun bat”, “Au mundua”, “Nekazaritza”, “Nere diruak”, “Sorgiñak”, “Mami”, “Aideko sorgiña” eta abar. Bakarrizketa geienak sarituak izandu ziran.*

*Bañan bi erreteriar auek oso gutxi ezagunak dirade erritarren artean, naiz eta Evaristo Bozas Urrutiak “Nere erriaren ibillaldi eta goraberak” liburuan bi antzerki egille auen bizitzaren berri lerro batzuen bidez azaltzen dituen. Ona emen erriko berrien ikerleentzat lan egoki bat bat ondo-rengoentzako mesedetan.*

*Naiz eta emen jaio ez izan, bere antzerki bizitza gure errian izan zuan eta beti erreteriar sentitu izandu zuan, batzokiko taldearen zuzendari 1.931tik 1.936era eta “Itzalpean sendotasuna” izeneko komedia dramatikoak idatzi zuen Felipe Lizasok. Joan zan urtean betirako utzi ginduan eta bere idazlanen utsunea nabari izango da gure Oarso urtekarian, oso puntuala izaten baizen bere idazlanarekin.*

*Eta akenik azal ditzagun orain gelditzen zaizkigunak: M<sup>a</sup> Antonia Esparza Mujikak “Ausardi” taldeko zuzendariak, “Cabaret” izeneko antzerkiarekin, aunditu du taldearen errepertorioa eta onela bosteko onetan sartuko degu antzerkiegille bezela.*

*Eta ona emen, gure errian antzerkiegille gabe gelditzen giñalakoan, non irtetzen duen egille berri batek: Mikel Ugalde bere izena.*

*Andoni Korta “Añarbe”ren eriotzaren ogeitabost urte zala eta bere omenez “Añarberen billa” izeneko antzerkia prestatu zuen, eta ez nolanaikoa; antzerki onekin abiara arturik (1.997 urtean izandu zan ori), iru urte auetan amairu lan osatzen duten zerrenda osatu du.*

*Bigarren antzerkia eta au ereintzatarrek antzeztua, “Jaioko dira berriak” Xenpelarri buruz egindakoa izandu zan. Eta bere zerrenda luzean aipamen berezia merezi duena, igaro genduen urtean Toribio Alzaga sariaren irabazlea izandu zan “Bake biltzarraren albotik” izenekoa.*

*“Periko”, “Bi-Biri”, “Uztapide gogoan”, Merkealdiak”, “Ipuin kontalaria”, “Herriko Batzarra”, “Martin”, Ongi merezitako emaitza”, “Dira”, “Farranda baten amaierako pasadizoak” eta “Telefonoa”. Ona emen gure Mikelek egindako lan ugaria. Urte askotan horrela jarraitzeko doai berezia izatea opa diot biotz biotzez Erretereria eta Euskal Erriaren onerako.*

*Eta onela amaitzen dut nere lan au, asmo onez beterik egindakoa, eta zerbaiterako balio izateko naiarekin. Utsuneak barkatu eta datorren urteraino, Jainkoak nai badu.*

Antziñatikan gure erriak maite zuben antzerkia

Joan dan mendean ez dute aztu orduan egindakoa.

Urteak urte talde berriak azaldurikan errira

Jarraitu dute tinko eutsiz egintza oien oitura

Ondorengoak izan dezaten antzerki zaletasuna.

*P.D.:* Nere esker onena “Ereintza”, “Langagorri”, “Ausardi”, Udal Agiritegi, Udal Kultura saillari eta lan onetarako ainbat berri eman dizkidatenei, lan au argitaratzeko eman dizkidaten laguntzarengaitik.



**OARSO**



**2000**